

1210 – Portfolio digitala, ikasketa autonomorako tresna

Aitzol Astigarraga Pagoaga – Udako Euskal Unibertsitatea

"Portfolio digitala" ikastaroak ikas-irakaskuntzako gaitasun digitala garatzen eta hobetzen lagunduko du. Ikastaroak, batez ere, gaitasun digitalari dagozkion ondorengo alorrak landuko ditu: Informazioa, informazio alfabetatzea eta datuen tratamendua, Komunikazioa eta lankidetzak, Eduki digitalaren sorkuntza eta Arazoen ebazpena.

Frantsesezko *portefeuille* hitzetik eratorria, portfolioa eskuzorro moduko bat da, paperak, dokumentuak, liburuak eta antzeko gauzak eramateko erabiltzen dena. Azken batean, pertsona baten ibilbidea edo jarduna erakusten duten lanen bilduma bat.

Hezkuntza-testuinguruetan, portfolioa ikasleari irakaskuntzan egiten dituen ahaleginak eta emaitzak modu objektiboan dokumentatzeko eta erakusteko aukera ematen dion tresna da. Bertan, ikasleak, hausnarketa-prozesu baten bidez, jardueren kantitatea eta kalitatea deskribatzeko eta aztertze modua dauka, eta bere ondorioak babesten ditu dokumentu eta materialekin.

Azken urteotan, portfolio digitalak interes handia piztu du hezkuntza-teknologiaren arloan. Portfolio digital edo ePortfolio gisa izendatu ohi dira literaturan.

Ikastaro honetan, portfolioa irakaskuntzarako eta ikaskuntzarako metodologia gisa aztertuko dugu, ikasleak portfolio digitalak gara ditzan tresna irekiak ezagutuko ditugu eta Moodle plataforman oinarritutako irakaskuntzarako portfolio digitala osatuko dugu; betiere, ikaslea bere ikaskuntza-ibilbidearen jabe bihurtzeko ahaleginean emaitza didaktiko hobeak lortzeko.

Ikasgela (www.irakasbil.eus > NIRE IKASTAROAK)

Matrikula egin ostean, ataritiko plataforma barrura sartu, dagozkizun **erabiltzaile-izena** eta **pasahitza** idatziz. Ikasgela "Nire ikastaroak" sailean aurkituko duzu.

Helburu orokorrak

- Portfolio digitala ikaskuntza autonomoa sustatzeko tresna gisa ezagutzea eta baloratzea.

Helburu operatiboak

- Portfolioa zer den, zeintzuk diren bere ezaugarriak eta elementuak, nola antolatzen den edukia bertan eta ikas-irakaskuntzan zertarako erabili daitekeen ezagutzea.
- Irakaslearen eta ikaslearen portfolio digitalak garatzeko tresna libreak ezagutzea.
- Portfolio digitala sortu eta osatzeko web 2.0 tresnak ezagutu eta erabiltzea.
- Irakaskuntzaren testuinguruan, portfolio digitalen posibilitate pedagogikoez jabetzea.
- Ikasleari bere portfolioa egiten eta elikatzen laguntzea, horretarako jarraibideak emanez.
- Irakaskuntzarako portfolio digitala osatzea.
- Moodle plataformarekin bateragarriak diren portfolio digitalak erabiltzea.

Edukiak

1. Portfolioa ikas-irakaskuntzarako tresna gisa
2. Irakaskuntzaren portfolio digitala lantzen
3. Irakaslearen portfolio digitala
4. Azken produktua

Metodologia

Ikastaroa b-learning motakoa izango da, saio sinkronoak eta online irakaskuntza konbinatuz. Era berean, ikastaroak alde teorikoa eta praktikoa uztartuko ditu, ikaskuntza-prozesuari eta gaitasunei garrantzi handia eskainiz.

Ikastaroa emateko Moodle (<http://moodle.org/>) irakaskuntza-plataforma batean oinarrituta dagoen HABEko ikasgela birtuala erabiliko da (<http://www.ikasten.ikasbil.eus/>). Moodle GPL lizentzian (Lizentzia Publiko Orokorra) oinarritzen den ikasketarako kudeaketa-sistema da. Plataforma horren bitartez, ikasleek ikastaroko informazio, eduki eta jarduera guztiak eskura izango dituzte, eta komunikatzeko bestelako tresnak ere bai (foroak eta bideo-deiak egiteko aplikazioak, esaterako). Tresna horiek ikasleek arteko elkarrekintza eta ikasle-irakasle komunikazioa erraztuko dute.

Ikastaroa bideratzearen arduraduna irakaslea izango den arren, ikasle-taldearen parte-hartzea funtsezkoa da. Ikasleak dira ikasgela birtualaren eta saio sinkronoetako benetako protagonistak eta, ondorioz, ikasleak izango dira, interakzioa eta komunikazioa ardatz izanda, euren ezagutzak eraikitzearen arduradunak.

Ikastaroko atal bakoitzaren lanketak 3 zati ditu:

1. Foroak eta komunikazio-tresnak: ikastaro osoan baliatuko ditugun komunikazio-tresnak dira. Lantzen den gai zehatzari buruzko zalantzak formulatu eta erantzuteko. Baita irakaslearekin tutoretza-saioak eta saio sinkronoak burutzeko ere.
2. Edukiak: Atal bakoitzeko jarduerak egin ahal izateko behar diren azalpenak eta kontsulta-materiala.
3. Jarduerak: mota ezberdinetako jarduerak biltzen ditu.

Ebaluazioa

Ikastaroak ebaluazio-eredu jarraitua eta hezitzailea baliatu nahi du. Horretarako, ikastaroan proposatutako jarduerak epeen barruan burutzea ezinbestekoa izango da. Horrekin batera, berdinen arteko koebaluazio-ariketa ere burutuko da, eta ikasleak azken produktu bat ere aurkeztu beharko du: ikastaroan ikasitakoa jasoko duen portfolio digitala.

Bibliografia

- Arís Redó, N., & Fuentes Loss, M. (2016). *La elaboración del portafolio a través del trabajo cooperativo y la autoevaluación*. <https://doi.org/10.35362/rie71214>
- Astigarraga Pagoaga, A. (2020). *Mahara ePortfolioaren erabilera online Irakaskuntza Masterrean*. <https://doi.org/10/46297>
- Carretero, S., Vuorikari, R., & Punie, Y. (2017). *The digital competence framework for citizens*. Publications Office of the European Union.
- Farrell, O., & Seery, A. (2019). "I am not simply learning and regurgitating information, I am also learning about myself": Learning portfolio practice and online distance students. *Distance Education*, 40(1), 76–97.
- Iruskietta, M., & Aldabe Arregi, I. (2019). *IKTak eta konpetentzia digitalak hezkuntzan*. Udako Euskal Unibertsitatea : Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Lewis, L. (2015). A critical reflection on eportfolio as a teaching tool. *Teachers' Work*, 12(2), 115–130. <https://doi.org/10.24135/teacherswork.v12i2.179>
- Morreale, C., Van Zile-Tamsen, C., Emerson, C. A., & Herzog, M. (2017). Thinking Skills by Design: Using a Capstone ePortfolio to Promote Reflection, Critical Thinking, and Curriculum Integration. *International Journal of EPortfolio*, 7(1), 13–28